



Lehiaketaren oinarriak ERAZTUN BERDEA, +25

Gaia: Gasteizko Eraztun Berdearen gunen naturalak, edo izadiaren babesarekin bateragarriak diren jardueretan gunen horiez gozatzeko ari den jendearen argazkiak onartuko dira lehiaketan.

Lanak eta aurkezteko modua: Instagrameko profileran igotako argazki eta argazki-muntaketa guztiak onartuko dira, baldin eta behar bezala etiketatuta badaude, [#anilloverde25](#), [#vg_ataria](#) eta [#SalimosHoy](#) etiketekin, eta horrez gain, argazkian ageri den parkearen etiketarekin: [#vg_salburua](#), [#vg_zabalgana](#), [#vg_olarizu](#), [#vg_zadorra](#), [#vg_lasneveras](#) edo [#vg_armentia](#).

Lan-kopurua: ez da lan-kopuru mugarik ezarriko partaide bakoitzeko.

Lanak aurkezteko epemuga: Lehiaketaren deialdia egin baino lehenagoko argazki guztiak onartuko dira, baldin eta partaideen beraien Instagramera 2018ko apirilaren 30ean baino lehen igo badira, behar bezala etiketatuta.

Epaimahaia: antolatzaileen (@SalimosHoy, @vg_cea eta @vg_ataria) eta Eraztun Berdea +25 programazioko gainerako jarduerak koordinatzen ari diren eragileen arteko zenbait kidek osatuko dute epaimahaia.

Ezingo da epaiaren kontra jo, eta, behar izanez gero, epaimahaiak gerta litekeen edozein gorabeheraren gainean erabakiko du.

Lehen, bigarren eta hirugarren sariak emango dira. Halaber, astero-astero "Asteko argazkia" hautatuko da, eta horiekin guztiekin 2018ko maiatzaren 24tik uztailaren 8ra bitartean ikusgai egongo den erakusketa egingo da.



Epaimahaikideek eta antolatzaileek ezin izango dute lehiaketan parte hartu.

Epaia: epaimahaiaren epaia 2018ko maiatzaren 2an jakinaraziko da @SalimosHoy eta @vg_ataria profiletan, zeinetan argazki irabazleak argitaratuko diren, egileen izenekin batera.

Hurrengo egunetan @SalimosHoy profileko antolatzaileak harremanetan jarriko dira irabazleekin, Instagrameko mezu pribatu bitartez, sarien banaketaren xehetasunak zehazteko.

Sariak:

- 1. SARIA: 300 € dirutan, bale bat IGlnen agendako hiru jardueretan parte hartzeko, pasiera 5 pertsonentzako Arkautiko hezegunearen barnean eta tokiko elikagaien kaxa bat.
- 2. SARIA: 200 € dirutan, bale bat IGlnen agendako bi jardueretan parte hartzeko eta tokiko elikagaien kaxa bat.
- 3. SARIA: 100 € dirutan, bale bat IGlnen agendako jardueraren batean parte hartzeko eta tokiko elikagaien kaxa bat.
- 6 AKZESIT (Eraztun Berdeko parke bakoitzeko bana): bale bat IGlnen agendako jardueraren batean parte hartzeko.

Irabazleek hilabeteko epea izango dute sariak jasotzeko, epaia argitaratzen den biharamunetik hasita. Epe hori gaindituz gero, hurrengo sailkatuari emango zaio saria.



Oharrak: antolatzaileek (@SalimosHoy, @vg_ataria eta @vg_cea) bakarrik baliatu ahalko ditu lan etiketatuak beren webguneetan eta sare sozialetan (Facebook, Instagram eta Twitter), lehiaketaren beraren edo Eraztun Berdearen berri emateko asmoz. Edonola ere, beti aipatu beharko dira lanen egileak. Bestalde, lan horiekin erakusketa bat osatuko da, zeina 2018ko maiatzaren 24tik uztailaren 8ra bitartean Atarian ikusgai izango den. Argazkien beste edozein erabilerarako, nahitaezkoak izango dira egilearen berariazko baimena eta lizentzia, berdin delarik argazki horiek irabazle izan diren edo ez.

Partaideei dagokie oso-osorik aurkeztatuko lanen gainean hirugarrenen eskubiderik ez dagoela bermatzeko ardura, eta bere gain hartuko dute irudi-eskubideen edo irudietan agertzen diren pertsonen eskubideen kontura sor litekeen erreklamazio oro.

Lehiaketan parte hartzeak berekin ekarriko du oinarri hauek onartzea.